



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko otsailaren 5a

22. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak  
egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio -txostena, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua eta norainokoa (5. or.).
- III. Iritzia (6. or.).
  - III.1. Unibertsitate Publikoaren 2012ko kontu orokorra (6. or.).
  - III.2. Legezketasuna (6. or.).
  - III.3. Unibertsitatearen egoera ekonomiko-finantzarioa 2012ko abenduaren 31n (6. or.).
  - III.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea. (7. or.).
- IV. Unibertsitatearen 2012ko kontu orokorraren laburpena (8. or.).
  - IV.1. 2012ko aurrekontuaren betetze-maila (8. or.).
  - IV.2. 2012ko aurrekontu-emaizta (9. or.).
  - IV.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2012ko abenduaren 31n (9. or.).
  - IV.4. 2012ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (10. or.).
  - IV.5. 2012ko emaitzen kontua (11. or.).
- V. Gomendioak (12. or.).

**I. SARRERA**

Gizarte Kontseiluak, 2011ko abenduaren 23an, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2012ko ekitaldirako hasierako aurrekontua onetsi zuen. 2012ko kontuak 2013ko ekainaren 26an onetsi zituen Gizarte Kontseiluak.

Unibertsitateak, zeinak bi campus baitauzka, Iruñekoa eta Tuterakoa, honako egitura zuen 2012an:

- Hiru fakultate: Ekonomia eta Enpresa Zientziak, Giza eta Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak.

- Bi goi mailako eskola tekniko: Nekazaritza Ingeniariak, Industria Ingeniariak eta Telekomunikazioak.

- Osasun Ikasketen Unibertsitate Eskola.

- Hogeita bi sail.

- Doktoretza eskola bat.

- Ikerketarako unibertsitate-institutu bat: Agrobioteknologiako Institutua.

- Elektronikaren eta komunikazioaren arlorako I+G zentro bat.

- Hiru katedra: "Industria Ingeniarien Elkargoko Katedra", "Berdintasun eta Gizarteratze Gaiei buruzko Ikerketaren Katedra" (CIPARAIS) eta "Jorge Oteiza Katedra".

- Hezkuntzaren berrikuntzarako goi mailako zentro bat.

Gainera, Unibertsitate-Gizarte Fundazioa dauka, Unibertsitateak berak sortua 24.040 euroko ekarpenarekin. Nagusiki, hizkuntzen irakaskuntza eta enplegu-bilaketa kudeatzen ditu.

**Unibertsitateak honako entitateetan hartzen du parte:**

Entitatea	Xede soziala	Partaidetzaren zenbatekoa 2012-12-31n
"Estanislao Aranzadi" Praktika Juridikoko Eskola Fundazioa	Zuzenbideko lizentziatuen prestakuntza	18.510
Amado Alonso Fundazioa	Sortzailearen bizitza eta obra zabaltzea eta hark jardun zuen arloak, bereziki filologia, sustatzea.	1.202
Start Up Capital Navarra SA	Enpresak sustatzea, haien kapitalean parte hartuz.	30.000
Pamplona Convention Bureau SL*	Iruñearen sustapen turistikoa eta biltzar-hiri gisako sustapena	2.254
Portal Universia SA	Teknologia berrien arloko zerbitzuak	26.930
Sigma Gestión Universitaria, AIE	Unibertsitate-kudeaketarako lanabes informatikoak	200.137
Univalue. S.L.	G9ko unibertsitateekin	124.000
Campus Iberus Partzuergoa	Zaragozako, Lleidakoko eta Errioxako unibertsitateekin	3.000

\*Likidatzen ari den sozietatea

Bestalde, Jaime Brunet Fundazioak oinarritzko eskubide eta askatasunen sustapenean jarduten du. Unibertsitateak ez du fundazio horretan parte hartzen, helbide soziala Unibertsitatean duen arren.

Honakoa izan da langileen eta ikasleen bilakaera 2009tik 2012ra:

Kontzeptua	2009		2012	
	GUZTIRA	Lanaldi osoa dutenen pareko langileak	GUZTIRA	Lanaldi osoa dutenen pareko langileak
Irakasle funtzionarioak	365	359	355	350
Irakasle kontratatuak	555	258	523	257
<b>Irakasleak, guztira</b>	<b>920</b>	<b>617</b>	<b>878</b>	<b>607</b>
<b>AZLak</b>	<b>496</b>		<b>483</b>	
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.416</b>		<b>1.361</b>	

Honakoa izan da ikasleen bilakaera 2009/2010 ikasturtetik 2012/2013 ikastertera:

Ikasleak	2009/10	2012/13
Lizentziaturak, diplomaturak eta gradua	7.372	6.943
Masterra	597	627
Doktoretza	270	296

Nafarroako Kontuen Ganberak honako txostenak egin ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruz:

a) Finantzen gaineko txostenak:

- 1988ko ekitaldiari buruzkoa.
- 1990eko ekitaldiari buruzkoa.
- 1992ko ekitaldiari buruzkoa.
- 1998ko ekitaldiari buruzkoa.
- 1999-2000ko ekitaldiari buruzkoa.
- 2001-2003ko ekitaldiari buruzkoa.
- 2004-2005eko ekitaldiari buruzkoa.
- 2006-2007ko ekitaldiari buruzkoa.

b) Bestelako txostenak:

- Unibertsitatearen eraikuntza (1993).
- Irakasleen kidegoak parekatzeko osagarria (1996).
- Irakaskuntzaren auditoretza (1996).
- Sektore Publikoaren eta Unibertsitatearen arteko hitzarmenak (2003).
- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kudeaketaren azterketa (2010).
- Gomendioen jarraipenari buruzko txostena (2013).

Eskerrak ematen dizkiegu Unibertsitateko langileei, lan hau egitean emandako laguntzarengatik.

## II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Nafarroako Unibertsitatearen 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2012an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

- Aurreko fiskalizazio-txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetze-maila.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzen jotzen diren aholkuak, Unibertsitateak ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edota osatzekoak.

Gure azterketak honakoak hartzen ditu: 2012ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, egoerari buruzko balantzea, emaitzen kontua eta oroitidazkia. Azken hori txostenaren eranskin gisa ageri da.

2013an, Nafarroako Kontuen Ganberak "Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kudeaketaren azterketari buruzko txostenaren gomendioen jarraipenari buruzko txostena" egin du, eta hartara jo beharko da kudeaketa-alderdiei dagokienez.

Gure lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

**III. IRITZIA**

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Unibertsitatearen ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen IV. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau ateratu dugu:

**III.1. UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN 2012ko KONTU OROKORRA**

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak zehazki jasotzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzeko den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

**III.2. LEGEZKOTASUNA**

Oro har, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ekonomia- eta finantza-jardueraren legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

**III.3. UNIBERTSITATEAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2012ko ABENDUAREN 31n**

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egoera finantzarioa honako adierazleetatik ondorioztatzen da:

Kontzeptua	2011. urtea	2012. urtea
Gastuen aurrekontuaren betetzea	78,3	75,1
Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea	79,6	71,0
Aurrekontu-saldoa	1,3	-4,1
Aurrekontu-emaitza doitua	1,7	0,6
Aurrezki gordina	5,8	2,6
Aurrezki garbia	5,8	2,5
Diruzaintza-gerakina, guztira	17,9	14,6
Atxikitako diruzaintza-gerakina	13,0	9,5
Xedapen libreko diruzaintza-gerakina	4,9	*5,1
Epe luzerako zorrak	2,5	2,6

\* 5.1 milioi horietatik 1,3 milioi erabili dira 2013ko aurrekontua finantzatzeko, aurrekontu horrek hasieratik defizit horixe bera baitzuen.

Datu horien arabera:

- Nafarroako Unibertsitate Publikoak diruzaintza-gerakin positiboa dauka, eta hura erabiltzen du gastuak finantzatzeko. Hori dela eta, logikoa denez, gutxitzen ari da.

- Aurrekontu-emaitza doitua positiboa da.
- Zorpetzea ia hutsa da.
- Aurrezki gordin eta garbi positiboa lortzen du, ia kopuru berekoa.

### III.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Oro har, ikusten da Nafarroako Unibertsitate Publikoak ezarri dituela edo ezartzen hasi dela Nafarroako Kontuen Ganberaren aurreko txostenetan egindako gomendio administratibo eta finantzario nagusiak.

Auditoretzari buruzko iritzian eraginik izan gabe ere, eta txostenaren ulermena erraztu eta osatze aldera, Kontuen Ganberak honako alderdiak eman nahi ditu aditzera:

- 1994ko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra aplikatzen da.
- 2012rako finantzaketa-hitzarmena 2012ko abenduaren 21ean sinatu zuten Nafarroako Gobernuak eta Unibertsitateak.
- Nafarroako Gobernuak onetsitako aurrekontu-doikuntzen ondorioz, murrizketa batzuk izan ziren hasiera batean aurreikusitako finantzaketan. Hori dela eta, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orrian egoera hori jasotzen duen zutabe bat ageri da.
- Egonkortasuna bermatzeko neurriei buruzko 20/2012 Dekretua aplikatuta, ez zen abenduko aparteko soldata ordaindu.
- Matrikulen ondoriozko diru-sarrerak kutxako irizpideari jarraituz erregistratu ziren.
- Kontu-hartzaitza eta Ikuskaritza Zerbitzuak txostenak egiten ditu, eta Unibertsitateak, oro har, praktikan jartzen ditu haren gomendioak.

• Unibertsitate-Gizarte Fundazioa kanpoko profesionalek ikuskatzen dute, eta aldeko iritzia eman dute. Honakoak dira haren datu ekonomiko nagusiak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Fundatze-zuzkidura	425.493
Funts berekiak, 2012-12-31n	964.538
Diru-sarrerak, 2012an	7.650.695
Langile-gastuak, 2012an	2.012.953
2012ko emaitza	0

**IV. UNIBERTSITATEAREN 2012ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Ondoren, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2012ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontu-emaiza, diruzaintza-gerakina eta emaitzen kontua ematen ditugu.

Ondoren ematen ditugun diruzaintza-gerakinak, balantzeak eta emaitzen kontuak, konparazio-eraginetarako, 2011ko datuak agertzen dituzte, nahiz eta kontu horiek ikuskatu gabe dauden.

Emaitzen kontuak, konparazioa errazte aldera, beste zutabe bat badauka, datu homogeneizatuekin, zeren eta jada 2011n 2010eko amortizazioaren kalkuluan izandako akats informatiko bat zuzendu baitzen.

**IV.1. 2012ko AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA**

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Azalpena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Behin betiko kreditu doitua	Aitortutako betebeharrak garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak (%)
1. Langile gastuak	49.185.234	5.913.195	55.098.429	52.407.149	49.827.968	66,33
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	14.520.977	12.154.713	26.675.690	25.771.445	16.577.544	22,07
3. Gastu finantzarioak	10.274	12.200	22.924	20.786	14.975	0,02
4. Transferentzia arruntak	1.254.386	1.294.882	2.549.269	2.416.983	1.942.427	2,59
6. Inbertsio errealak	5.488.372	2.360.151	7.848.523	7.454.102	6.686.096	8,9
7. Kapital-transferentziak		87.988	87.988	87.988	62.193	0,08
8. Finantza-aktiboak		3.000	3.000	3.000	3.000	
9. Finantza-pasiboak	131.835			131.835	11.985	0,02
<b>GUZTIRA</b>	<b>70.591.528</b>	<b>21.826.129</b>	<b>92.417.657</b>	<b>88.293.287</b>	<b>75.126.187</b>	<b>100</b>

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Azalpena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspen doitua	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako eskubide garbiak
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	8.930.967	4.396.166	13.327.133	13.327.133	13.033.307	18,30
4. Transferentzia arruntak	59.552.622	2.758.228	62.310.850	58.186.480	57.603.382	81,07
5. Ondarezko diru-sarrerak	294.302		294.302	294.302	348.382	0,49
7. Kapital-transferentziak	119.870		119.870	119.870		
8. Finantza-aktiboak	1.693.767	14.577.533	16.271.300	16.271.300	1.000	
9. Finantza-pasiboak		94.201	94.201	94.201	94.201	0,13
<b>GUZTIRA</b>	<b>70.591.528</b>	<b>21.826.129</b>	<b>92.417.657</b>	<b>88.293.287</b>	<b>71.050.272</b>	<b>100</b>



## IV.2. 2012ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptuak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Dirukopuruak
<b>1. (+) Eragiketa ez-finantzarioak</b>	70.955.071	75.111.202	-4.156.132
I. kapitulua	0	49.827.968	-49.827.968
II. kapitulua	0	16.577.544	-16.577.544
III. kapitulua	13.003.307	14.975	12.988.332
IV. kapitulua	57.603.382	1.942.427	55.660.955
V. kapitulua	348.382	0	348.382
VI. kapitulua	0	6.686.096	-6.686.096
VII. kapitulua	0	62.193	-62.193
<b>2. (+) Finantza-aktiboekiko eragiketak</b>	1.000	3.000	-2.000
VIII. kapitulua	1.000	3.000	-2.000
<b>I. EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2)</b>	70.956.071	75.114.202	-4.158.132
IX. kapitulua.	94.201	11.985	82.216
<b>II. FINANTZA-PASIBOEN ALDAKETA GARBIA</b>	94.201	11.985	82.216
<b>III. EKITALDIKO AURREKONTU-SALDOA (I + II)</b>	71.050.272	75.126.187	-4.075.915
<b>3. (+) Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako kredituak</b>			1.096.918
<b>4. (-) Finantzazio desbideratze positiboak, finantzabide atxikia duten gastuetan, ekitaldiko baliabideetatik.</b>			0
<b>5. (+) Finantzabide desbideratze negatiboak, finantzabide atxikia duten gastuetan</b>			3.532.906
<b>IV. EKITALDIKO FINANTZAKETAREN SUPERABITA EDO DEFIZITA (III + 3 + 4 + 5)</b>			553.909

## IV.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2012ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2011ko zenbatekoak	2012ko zenbatekoak
1 (+) Kobratzeko dauden eskubideak	8.191.300	6.602.382
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: egungo ekitaldia	6.298.272	5.114.240
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	5.119.341	3.435.970
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	614.946	1.032.270
(+) Merkataritzako eragiketak	0	0
(-) Eginiko kobrantzak, behin betiko aplikatu gabeak	0	-474
(-) Kobratzeko zailak diren saldoak	3.841.259	2.980.571
2 (-) Ordaintzeko dauden obligazioak	5.242.612	4.784.317
(+) Gastuen aurrekontua: egungo ekitaldia	3.286.973	3.165.551
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	40.987	14.024
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	1.916.668	1.631.037
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0	0
(-) Eginiko ordainketak, behin betiko aplikatu gabeak	2.016	26.295
3 (+) Diruzaintzako funts likidoak	14.992.099	12.819.976
= Diruzaintza-gerakina, guztira (1-2+3)	17.940.787	14.638.042
Atxikitako diruzaintza-gerakina	13.056.361	9.523.454
Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina	4.884.426	5.114.587

## IV.4. 2012ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

Jardunean	2011	2012	Pasiboa	2011	2012
<b>A) IBILGETUA</b>	<b>167.199.742</b>	<b>166.157.808</b>	<b>A) FUNTS BEREKIAK</b>	<b>182.786.716</b>	<b>178.359.820</b>
<b>II. Ibilgetu ez-materialak</b>	1.249.563	1.148.509	<b>I. Ondarea</b>	127.912.262	127.912.262
2. Jabetza industrialak	368.839	396.884	1. Ondarea	123.083.338	123.083.338
3. Aplikazio informatikoak	7.679.253	8.183.771	3. Lagapen bidez jasotako ondarea	5.385.399	5.385.399
6. Bestelako ibilgetu ez-materialak	42.781	42.781	5. Lagapen bidez emandako ondarea	-556.475	-556.475
8. Amortizazioak	-6.841.310	-7.474.928			
<b>III. Ibilgetu materialak</b>	165.518.305	164.575.425	<b>III. Aurreko ekitaldietako emaitza</b>	59.136.608	54.874.454
1. Lursailak eta eraikinak	163.918.818	165.587.757	1. Aurreko ekitaldietako emaitza positiboak	59.136.608	54.874.454
2. Instalazio teknikoak eta makinak	43.346.529	44.863.600			
3. Tresneria eta altzariak	17.551.337	17.736.198			
4. Beste hainbat ibilgetu	53.377.675	55.740.043	<b>IV. Ekitaldiko emaitzak</b>	-4.262.154	-4.426.896
6. Amortizazioak	-112.676.055	-119.352.172			
			<b>c) EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK</b>	2.566.326	2.648.543
			<b>II. Epe luzeko bestelako zorrak</b>	2.566.326	2.648.543
			2. Bestelako zorrak	2.566.326	2.648.543
<b>V. Finantza-inbertsio iraunkorrak</b>	431.874	433.874			
1. Epe luzerako baloreen zorroa	428.073	430.073	<b>D) EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK</b>	5.256.613	4.822.122
3. Epe luzera eratutako fidantzak eta gordailuak	3.801	3.801	<b>III. Hartzekodunak</b>	5.256.613	4.822.122
			1. Aurrekontuko hartzekodunak	3.327.960,	3.179.575
<b>B) ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK</b>	<b>224.498</b>	<b>224.498</b>	<b>2. Aurrekontuko ez diren hartzekodunak</b>	<b>152.838</b>	<b>220.285</b>
			4. Administrazio publikoak	1.723.508	1.369.828
<b>C) AKTIBO ZIRKULATZAILEA</b>	<b>23.185.415</b>	<b>19.448.179</b>	<b>5. Beste hartzekodunak</b>	<b>11.985</b>	<b>11.511</b>
			6. Epe laburrerako hartutako fidantza eta gordailuak	40.322	40.924
<b>II. Zordunak</b>	8.193.316	6.628.203			
1. Aurrekontuko zordunak	11.417.613	8.550.210			
2. Aurrekontuko ez diren zordunak	230.607	234.086			
4. Administrazio publikoak	384.339	798.184			
5. Beste zordun batzuk	2.016	26.295			
6. Hornidurak	-3.841.259	-2.980.571			
<b>III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak</b>	9.000.000	6.000.000			
1. Epe laburrerako baloreen zorroa	9.000.000,00	6.000.000,00			
<b>IV. Diruzaintza.</b>	5.992.099,01	6.819.976,35			
<b>Guztira (A+B+C)...</b>	<b>190.609.655,38</b>	<b>185.830.485,10</b>	<b>Orokorra, guztira (A+C+D)...</b>	<b>190.609.655,38</b>	<b>185.830.485,10</b>

## IV.5. 2012ko EMAITZEN KONTUA

Zor	2011	2011(H)	2012	Hartzeko	2011	2011(H)	2012
<b>A) GASTUAK</b>	<b>81.510.068</b>	<b>79.756.438</b>	<b>75.419.941</b>	<b>B) DIRU-SARRERAK</b>	<b>77.247.914</b>	<b>77.247.914</b>	<b>70.993.045</b>
<b>1. Zerbitzu eta prestazio sozialen funtzionamendu gastuak</b>	79.291.305	77.537.675	73.291.448	<b>1. Zerbitzuak ematea</b>	10.363.403	10.363.403	11.360.956
a) Langile gastuak:	51.889.253	51.889.253	50.123.498	a) Zerbitzuak emateko edo jarduerak egiteko tasak	30.121	30.121	1.010.839
a.1) Soldata, lansariak eta antzekoak	45.136.526	45.136.526	43.335.772	b) Zerbitzuak emateko edo jarduerak egiteko prezio publikoak	9.985.759	9.985.759	10.028.709
a.2) Gizarte zamak	6.752.727	6.752.727	6.787.726	c) Jabari publikoaren erabilera pribatiborako edo aprobetxamendu berezirako prezio publikoak	347.523	347.523	321.408
b) Gizarte prestazioak			0	<b>2. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk</b>	2.809.396	2.809.396	1.996.985
c) Ibilgetua amortizatzeko zuzkidurak	9.903.884	8.150.254	7.731.649	a) Itzulketak	13.361	13.361	10.331
d) Trafiko horniduretako aldaketak	47.576	47.576	-860.688	b) Entitateak eginiko lanak			0
d.1) Horniduren aldaketa eta kobraezinak diren kredituen galerak	47.576	47.576	-860.688	c) Kudeaketaren ondoriozko beste diru-sarrera batzuk	2.486.820	2.486.820	1.758.542
d.2) Diru-sarrerak itzultzeko horniduraren aldaketa			0	c.1) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	2.486.820	2.486.820	1.758.542
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	17.435.394	17.435.394	16.282.014	c.2) Arrisku eta gastuetarako horniduren gairikina			0
e.1) Kanpoko zerbitzuak	17.432.035	17.432.035	16.161.153	d) Kapitaleko parte-hartzeengatik diru-sarrerak			0
e.2) Tributuak	3.359	3.359	120.861	e) Beste balore negoziagarri batzuen eta aktibo ibilgetuko diru-sarrerak			0
e.3) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak.			0	f) Beste interes batzuk eta antzeko diru-sarrerak	306.985	306.985	226.601
f) Finantza gastuak eta antzekoak	13.198	13.198	12.988	f.1) Beste interes batzuk	306.985	306.985	226.601
f.1) Zorrek direla eta	13.198	13.198	12.988	f.2) Inbertsio finantzarioetako mozkinak			0
f.2) Finantza-inbertsioen galerak			0	g) Kanbioan izaniko alde positiboak	2.230	2.230	1.511
g) Finantza-inbertsioetarako horniduraren aldaketa			0	<b>3. Transferentziak eta diru-laguntzak</b>	64.036.948	64.036.948	57.595.209
h) Kanbioan izaniko alde negatiboak	1.999	1.999	1.987	a) Transferentzia arruntak	56.982.859	56.982.859	51.645.495
<b>2. Transferentziak eta diru-laguntzak</b>	1.981.687	1.981.687	2.004.620	b) Diru-laguntza arruntak	6.954.089	6.954.089	5.948.212
a) Transferentzia arruntak	10.667	10.667	26.027	c) Kapital-transferentziak	100.000	100.000	0
b) Diru-laguntza arruntak	1.922.141	1.922.141	1.916.400	d) Kapitaleko diru-laguntzak.	0	0	1.502
c) Kapital-transferentziak	48.879	48.879	62.193	<b>4. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak</b>	38.168	38.168	39.895
d) Kapitaleko diru-laguntzak.			0	a) Ibilgetutik heldu diren mozkinak	38.168	38.168	0
<b>3. Ez-ohiko galera eta gastuak</b>	237.076	237.076	123.873	b) Zorpetze eragiketetatik heldu diren etekinak			0
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	237.076	237.076	0	c) Aparteko diru-sarrerak			0
b) Zorpetze eragiketetatik heldu diren galerak			0	d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta mozkinak			39.895
c) Aparteko gastuak			0				
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak			123.873				
e) Ibilgetu ez-finantzarioaren horniduraren aldaketa			0				
<b>Aurrezkia</b>			0	<b>Desaurrezkia</b>	-4.262.154	-2.508.524	-4.426.896

(H) Emaita homogeneizatua. Horretarako, amortizazio metatuen eginiko doikuntza, 1.753.630 eurokoa, kentzen da, 2010ean amortizazioaren kalkuluan izandako akats informatikoa zuzentzeko.

## V. GOMENDIOAK

Gure lanaren ondorio gisa, gomendio hauek ematen ditugu:

- *Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera, urte anitzeko finantzaketa-eredu bat zehaztea, Unibertsitatearen finantza-egonkortasuna eta bideragarritasuna bermatzeko.*

- *Unibertsitateak 2010eko Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra aplikatu beharko du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak hura foru erkidegorako egokitzen duenean.*

- *Oroitidazkian jasotzea dauden auziei buruzko informazioa.*

- *Oroitidazkian plantillari buruzko informazioa azaltzea, lanpostu hutsei, betetako lanpostuei eta abarrekoei buruzko datuak emanez.*

- *Aztertzea aukerarik ba ote dagoen aurrekontuari lanpostuen zerrenda gehitzeko. Aipatu beharra dago 2013tik aurrekontuek lanpostuei buruzko informazioa biltzen dutela.*

- *Langile-gastuen kontu-hartzailatza egitea aurrekontuaren betetze-oinarrietan ezarritako terminoetan, zehazki, hileroko aldaketen egiaztapenei dagokienez; eta, kasua bada, betetze-oinarriak egungo bitartekoek bideratzen dituzten aukeren arabera egokitzea.*

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas